

1903-ko Agorraren 27-an

GIPUZKOAKO DIPUTAZIO CHIT GOITUAREN AURREAN

ON LEANDRO SOTO, APAIZAK

Meza nagusian egintako

SERMOYA

Irungo eleizan



Discant autem et nostri bonis operibus præesse ad usus necesarios, ut non sint infructuosi (Tit., capitulo 3. v. 14)

Ikasi dezatela guretarikoak egoki diran egitekotan lendabizikuak izaten, alperrrik igaro ez dedin eren bizitza.

Diputadu jaun ta gañerako aditzalle maitiak:

¡Nork lezaken mingain azkar, ugariya, jai eder auek, eliz onetako ikuskizun auek biyotz barruban sor azitzen dituzten oroitza ta goga-men guziyak adierazteko! Oroitzian zenbat gauza sortu ta desegin diran; zenbat erreinu jayo, azi, ugaritu, jabetu, arrotasunez beterik denbora menderatu nayian, nola aldendu, urratu ta aztu diran; zenbat gizonen asmaera, oitura, izkuntza gizaldi batzuetan zabaldu ondoren, nola utsian biurtu diran oroimen urri labor bat besterik kondairan utzi gabe; nola sinistu emen ikusten ta entzuten dana? ¿Nola arritu ez ta begiyak zerurontz jasorik, nola esan ez: *a Domino factum est istud*, Jaungoikuaren eginkizuna da au? ¿Nola esan ez: *ecce Deus*, griñik

gabe begiratu ta ikusi naidezutenok, ona Jaungoikuaren aztarna, ona Jaungoikuaren agiri adierazkorra? Bai a. m. gizona zer dan dakiyenanantzat dana ondatu ta desegiteko denborak duan indarra kondairan ikasiduanarentzat Jaungoikuaren eginkizuna da, ogei ta geyago gizaldi ondoren Euskal-erriya ikustia, eri bai, bañan beti ernai ta zutik gurutzepian, bere agintariyak aurren dirala, asierarik ikusi etzayon euskera gozo, leun, maite onetan itz egiten dualarik eta bere asmo aurrerakuntza, jakinduriyekin arro ta gallurturik dagoan mundu urri erakusten diola orain, lengo gisan, beti bezela iraunkorra, illezkorra, eziezkorra bat bakarra dala, Jaungoikua, bat bakarra dala, Jesukristoren gurutzia ta gure orren itzalpian gorde ta asedendutzen diran erri ta izkuntzak; erreljiyo ori dela sendagai bakarra, orregan arkituku ditugula gure salbaziyuarekin batera, mundu onetan izan giñ aizken eta egoki izan zaizkigun ondasun, on bide guziyak.

Gezurra dirudi, bañan gure zorionerako egi pozgarriya da ikustia, bi milla ta geiago urteren buruban, orduko gauzarik ezerchoere gelditzen ez dalarik, emen, mundu baztar onetan, danok, buru ta mendekuak, erreljiyo maite onetan bildu ta euskaraz gure gogo, premi ta ustiak biderik maitetsuena dan Jaungoiko orri adierazten, ikasiyaz Berakerakutsidigun alkarganako naitasunian, lagun urkoerenganako errukiyan, guregan dauzkagun eritasun ta gaitzak nola sendatzen diran: nola aurrerontzerako ayenatu litezken.

Zergatik emen itzegiteko asmua artu nubenian gauza bat bururatu zitzaidan, ta alperrik nai izan nuan aldendu, bada beti eukidet nere goguan; Jaungoikuak esan nai balit bezela: esan zaizkatzu zure anai maite, Euskal-erriko seme zintzo, leyal oyei, goguan dauzkatan egi oyek, osasungarriyak dira, zuk Eliza Ama doneari, Aita done beti goguan biar dezuten Leon XIII-garrenari ikasi dizkagu eta erakutsi oyek, salbatuko zaituzte, salbatuko dute Euskal-erriya.

Badakit ez naizela gauza; mingain motel, kemen labur, jakituri gabia naiz, ez det esan ere biarrik; geyegi igarriko dezute nere itzaldiya entzutian, bañan ni ere euskalduna naiz, biyotz, anima guziyakin Euskal-erriya inaite det, ta apaiz euskalduna naizen aldetik itze-gingo det eta pozik zeren ziur nago barkatuko dirazutela nere ez jakin ta moldatu eziña, zeren dakiten gañera etzeratela iñork aitu ez dituan egiyak entzutera etorri, baizikan maite zaituen anai batek Euskal-erriyaren en bidez esango dituan itzali entzutera, ta biyotzetik irtetzen diran itzak, beti izaten dira ongi etorriyak.

¿Nola, ordia, itz, labur, guchitan, nere gaurko itzaldiaren gaya adierazi? Euskal jai auek, Eliz festa otsaundiko onekin astendiralarik aitortu nai dute, emengo ondasunak ugaritzeko asmuari egiten diran alegiñak, Jaungoikuaren laguntzarekin egiñak, Jaungoikuaz eta Berari zortzayonaz aztu gabe egiñak, biardutela izan. Au egiteakin aurre-ratu zerate, diputadu jaunak, gizon argi, prestubak zeratelako, gaur dan eguneko arrisku izugarribat, galbide ikaragarribat ayenatzera, Euskal-erriya, munduaren gain datorren ekaitz larri, aundi, ikusi ez dan bezelako ekaitz orren ondamenak arrapatu ez dezan. Esan nainuke aberats ta beartsu, nagusi ta langilleen arteko guda gorrotoz betetako ori. Onek larritzen ta bildurtzen ditu agintari buru ziñezko diran guzik. Nolarebait nere gaya adierazi nairik entzun zer esan nainukien gaur goizian.

Festa oyeke adierazten dutela Euskal-erriko agintari, buru zaudetok arkitu dezutela, euskaldun zintzuak bezela Elizkoyak zeratelako, gaitz ondamen orren sendagai ona, zergatik emen, Euskal-erriyan, erreljiyuak anima argitu, biyotza beartsuenganako biguntzen duelarik, bere indarrez asmatu, azaldu ditu erbesteko erritan alegin, neke ta denborak eziñ topatu ta egotsi dituan osakerak.

Gai luze ta zalla, naiko jakituri ta denbora banitu, chit eder ta ongariya zuentzat eta neretzat; bañan ez izanik, ez bata ta ez bestia zercho bat baizik eziñ esango det. Entzun zadazute arretaz; ez dedilla alperrik esana izan, nere aotik irtetzen dalako.

¡O Jauna! ¿Nork on egin lezake, Zuk egiten ez badezu? ¿Nork, Zuk ez bada, laguntzen diye premi dutenai? ¿Eta zeñ ni bañan premi aundiyaguan? Aurretik bildur nitzan emen itzegiteko, bañan orain igartzendet zenbateraño bildur izan biar nuan. Estuasun onetan arren lagun zadazu, Jauna, egoki dana baizik esan ez dezatan. Iriki ditzatzu aditzallien biyotzak nere itzak ondo artuak izan ditezen. Lagundu zadazute Jaungoikuarengandik au iristen. ¿Eta noren bitartez Itegi, Junkaleko Ama Birjiñaren bitartez ez bada? Egizu Irundarren Ama bigun, gozo, laztana, itzaldi onetatik atera dezagula frutu ugariya, gure Euskal-erriyaren ta gure animen onerako.

Denok, onetarako, esango dizugu biyotz biyotzetik

AVE MARIA

Discant autem et nostri bonis operibus præesse ad usus necesarios, ut non sint infructuosi (Tit., capitulo 3, v. 14)

Diputadu jaun ta gañerako aditzalle maitiak:

Mundubak milla jira bira ikusi ditu, sakabanatu tanastu izan dira ezin zenbatu aldiz gauzak; ikusi izandu dira aldizka azpikuak goyan, goikuak bian, beti obetuago nayian, beñere ondo etziralarik, beti neke ta naigabiak, beti miñ ta atsekabiak ziralarik bañan gaur batez ere askorentzat miñ oyek geitu dira, naigabe oyek garraztu, ta sortu da biyotzetan gorroto beltz, gogor, ezikaitza, sortu da eziñ eraman ta eziñ ikusiya. Ondo ta gozoro izan naya, apainduri geyegiyaren zaletasuna alderdi guzietatik zabaldu da, gizaldi guztiak ari dira nondik geyago gozatuko, atsegiñ berrik ta jolas ugariyak nondik arkituko dituzten, ta beste aldedik, ez izanak ta ez edukiak berekin dakarzkite lanak, estuasunak ta premi aundiyak. Emendik dator gure egun abetako gaitza. Ez duanak nolana ere izan nai du; dubenak berriz, bere atsegiñetarako gorde naidu daukan guziya, ta ez bakarrik daukana gorde, geyago ta geyago ugaritu nailuke oraindik bere aberastasun ta ondo izatia, ta lan orretan egiten ditu bere alegiñ guztiyak, neurri onak darabiltzkien ta bide oker edo zuzenetik otedijuan begiratu gabe. Eta bi eratako gizon oyek, beartsuak eta aberatsak, bakoitzak bere aldera indar ta kemen guztiyak in sayatzen diralarik, elkar eziñ ikusi dute, azpikuak gorrotua daukate, goikuak bildurra, eta batzuek bestienganako adiskidetasunik gabe, or dabilta aserre biziyan, nork nola bata bestia garaitu ta azpiratuko duen. Ez dutenak dira geyenak, indartsuaguak, eta urrutira gabe elduko da, azpikuak goikuai gaiñ egingo diyoten eguna, eta gorrotuak ichutzen dituelarik, ¿nork esan zer egun illun, beltz, odolsuak datorzkigun?

Oyen asmo bildurgarriyak entzutian izutzen naiz, dardar jartzen naiz, eta biyotza zerura jasorik neregan esaten det: ¡Jauna! ¿nork geldi aziko du бага beltz, amorruz betetako ori? ¿Nork gozatu ta arinduko du aserre bizi, ezurretaraño sartuta dagon ori? ¿Nork oztu ta

itzaliko du, galda bezela biyotzak jarri dituen infernuko su ori? ¿Nork?

Begira ingurura zer gertatzen dan: Agintari ta buruk, nagusi diralako, gogorrian azpiratzen dituzte langilliak alchatzen diran bakoit-zian, bañan ikusi nola gero ta zallago zayen garaitze ori, zeren dabil-tzan langilliak gero ta batuaguak, gero ta alkarganatasun aundiya-gua daukaten, eta etorriko da egun bat, eta ezdago urruti, egun beltz, illun, odei chimistaz betetako batek lurbira estaliko duena; orduban entzungo dira antsi ta oju, orru ta irrintzi, birau ta blasfemi, ta eriyotza izango da lur odolduaren jabe bezela, ondorenguai erakutsiyaz, ondorengorik gelditzen bada, Jaungoikua botatzen dutenian, gorroto ta eziñ ikusiyaren laguntzarekiñ, eriyotza gelditzen dala gauza guztien nagusi. Ez uste esanak dirala oyek, ez dirala orren egun gogorrak etorriko. Kondairak erakusten digu orain eunbat urte alboko dierrri batian gertatu zana: ango gizon illtze, odol isurtziak eta len gertatuak adie-razi biardigu zer gertatuko dan berriz ere garaiz oroitzen ez bagera. Semiak dituzutenak begiratu ta bildurtu zaitezte. Gorrotuak piztu ta ugaritu ta gañez egindu biyotzetan ta gorrotuaren ondamenak gizonaren mingañak eziñ esan alakuak dira.

Eta ¿nola gorrotua piztu ez, baldiñ egunero, aspuk labiari bezela aize emanaz aribadira paper ta liburubak esanaz langilliai eren lan, neke, izerdi, gose ta premiyekiñ aberatsak aberastu, gozatu ta jolasten dirala? ¿Nola gorrotua sortuko ez da, baldiñ asabetatik artutako šiñištia kentzeri badiyote, ta šiñište onekin kentzen badiyozkate beste bi-zitzako ustiak, ango poz, atsegiñ, pake ta zorionak, emengo neke ta lanak ugari ordaindu litzateken gozotasun ayek? ¿Nola ez, baldiñ uste onen orde, šiñište arren lekuan esaten bazaye emen biardutela gozatu, emen izan biardutela zorionekuak, emen biardiyozkatela eman gorputzak nai ta eskatzen dituen atsegiñak? ¿Nola ez, baldiñ au esan ta erakutsiyakiñ uzten badituzte len beziñ beartsu, len beziñ premi dun, ukatzen badiyozkate atsegiñ oyek izateko erak, ematen ez badiyozkate atsegin oyek iristeko bidiak? ¿Nola gorrotua sortu ez, baldin biyotzetan zaletasun oyek, emengo gurari irazeki oyek piztu ondoren, asezteko biderik eman gabe, albuan ikusten badituzte aberats asko eren ondasunekiñ arrotubak, apainduri eder ta garestiz estaliyak, urrez betiak, jolastik-jolas, festarik-festa dabilzala, atsegin berriyak nondik arkituko dituzten, beartsuai goitik bera begiratzen diyotela, biyotz gogor, errukirik gabiak, gañerako gizonak bere antzekuak ez balira bezela, beartsu oyentzat biar, neke estu ta larririk lurrian ez balitz bezela?

Ez dakit aberats gogor, zentzu gabeko oyek zer usteko duten; badakit ordia siñište gabeko beartsuaren biyotzian zer asmo azalduko diran aberats oyen arrokeriyak ikustian. Biyotz orretatik irtengo da, gorrotuaren kedar beltzarekiñ, nai bat, nai sutu, indartsuba, osoro ichutuko duana, mendekatu, bengatu naya. Nik ezin nezake gozatu, esango du, ta diyote, denak berdiñak gerala; aberatsa ta ni ez gera, eziñ gera berdiñak izan; nik ondatuko det aberatsa, nere beso senduak zapalduko du, nere eskubak illko du, ni ere illko naute, bañan eriyotzak berdinduko gaitu, besterik ez bada, bein berik izango gera berdiñak, berdiñak lur azpiyan.

Eta ¿nork sendatu gaitz ori? ¿Zer egin aserre ori, elkar arteko eziñ ikusi ori kenduta pake, maitetasun onian jartzeko? ¿Denak izan albalitezke aberats? ¿Nolatan, bañan, ezin litekean gauza bada?

Oroitzen naiz irakurri nuala, mundu guztikoen diruak zenbatu ondoren, denon artian zatitu, banatuko balira, bakoizak izango lukiela guchi gora bera eun ta berrogei ta amar pezeta. (Al litekean gauza erreza balitz ere, ¿nork esan nekazari bati, aberastu ondoren, dijoala bizkar ezurra makurtuaz, goizetik eta gabera, bere izerdiyak soroan isurtzera? ¿Nork siñištu joango litzakeala?) Ez, ezin giñaiške denok aberats izan. Gizonaren griñak, charrerako daukagun erreztasun gastuak, laster sortuko litzuzke desberdintasun berriyak; alperra laster da beartsu, langillia laster da zerbaiten jabe. Jesukristok esandu, ta antziñetako kondairetan, ta gaurdan egunian ikustenda, gizonaren griñak zer diran dakitenak ondo jakiña daukate beti izango dirala beartsuak: *Pauperes semper habebitis vobiscum*.

Badakit zenbat asmo berri sortu diran gaitz ori sendatzeko. Denbora bagendu ez litzake zalla izango asmo oyen uskeriya azaltzia. Alaz guztiz ere ¿zenbat kalte egin dute! Amets choro, asko buru ariñ edo asmo gaštoko oyen erakutsiyak irichi dira langillien, beartsuen belarrietara, berotu dituzte ta sortu ere bai eren biyotzetan dena ondatu ta desegiñ ta gauza guztik era berri batian jartzeko goguak. Or dabilta elkarri ekiñaz, noiz dana naspillatuko duten, naiz ta onetarako lur guziya odolez estali.

Bañan ¿nun dago osakera on bat? ¿Nundik etorriko da sendagaya? Milla ta bederatzireun urte dira, Jesukristok Eliza jarri zuala, denen ta batez ere beartsuen ama izateko. Ez dago zer esanik zenbat alegiñekin lagundu diyen, beartsuai, nola zaindu ditun, zenbateraño arreta duan oyek ondo ikustiagatik.

Bazekien langille bat, bakarrik, banatuba arkitzen danian, premi ta estuasunez betia, emaztia ta aurrak mantendu eziñik badabill, noiz ta nagusi gogor, zeken baten atzaparretan erortzen bada, gosia kendu nairik, nola nai lana artuko duela, naiz irabazi laburra, sari chikiya izan. ¿Zer besterik egin lezake? Gosiak ill, ala guchi jan, beste biderik ez dauka. Gosiak ez illtzeagatik artuko du lana, zein da sari chikiya izan. Diña ezarren zerbait beñepein jango du ta arrastaka berik, aurrak biziko dira.

Langilliak nagusi gogorren atzaparretan orren errez erori ez zitezen, Elizak nai izan zuen, baita ere irichi, langille mota guzik bildu ta elkarganatzea, ta bildu ziran langilliak, arotz, errementari, igeltsero, argiñ, arrantzale, ere ta zeregiñ guzitakuak. Billera bakoitzak bazituen bere ondasunak, elkarrri bere gaitz, eritasunetan laguntzeko, lanik gabe zeudenai zercho bat eman ta baita ere lana errezago arkitu zezaten, iñori ere egoki zan baño irabazi chikigua eman ez zezayoten. Rillera oyek sortu ziran Elizaren bedeinkaziyuakin, santu bat edo beste patroï ta laguntzalle zutela; begiratzen zuten nola zuzendu ta onduko ziran, jakiñ erazorik beartsuai, lanetik bizi diranai, gañerakuai bezela, ez bakarrik obetuago izaten lagundu biar zayotela, baita ere erakutsi biar zayela, gogo onez beren lanak, bizi modu neketsua eramaten, beste bizitza obiaren icharopen ta ustiarekiñ.

Bañan etsaya beñere geldirik ez dago ta etorri zan infernuba lurrraren gañera; alboko dierriyan sortu zan erreboluziyua; beste bidegabe askoren artian sakabanatu zituen len aitaturako billerak, ayek eta beste dierritan laster orobat egiten zalarik, eragotzi ziyen langilliai elkarganatu ta batutzia. Orrela langilliak, autsa bezela apurtuak, gelditu ziran indargabe, laguntza gabe, lana nun ta nola topatu etzekitelarik, ematen zitzayena, naiz diña izan ez artu biarrian.

Entzuten dituanian zenbat diadar erreboluziyo orren jasoera, aunditasunerako egiten diran; ikustian langilliak erreboluziyo, naspill orren aldekuakin bat egiñik, Elizaren kontra alcha ta itzegiten, errukitzen naiz, ta datorkit gogora Jesukristo gure Jaunak esandako itz ayek: *Misereor super turbam*. Gaizuak, begi lausotuak dauzkatzute, ichubak zauzte, oker zuazte, etsayen atzaparretan erori zerate, zuen ama laztan izandu ta izango danaren kontra alcha zerate. Ez daukazute goguan, ez zer egin nai ta lezakean zuen onerako. Erakutsi berri, gezurrezkoen ondoren zuazte. ¿Zer atera dezute? Eunbat urte dira billera oyek banatu zituztela esanaz ordu artian langilliak askatasun gabe, jabetasun gogo-

rraren azpiyan bizi zirala, ordutandik etzala orrelako mendetasunik izango, eren buruen jabe izango zirala. ¿Nola daude? ¿Ez dezute ikusten nola ostera biurtzen diran denbora ayetara, billera ayek berritzera? Ez, ordia, onez eta maitetasunez, baizik aserriak, gorrotuak biltzen ditualarik, indarrez, eman nai etzayena gogorrian artu nayian, zeren gero ta gaizkiyago, gero ta antsi aundiyaguakiñ, gurari irazekiyaguakiñ arkitzen diran. ¿Nork ikusten ez du, langilliak, beartsuak ain gaizki badaude, dala batez ere, lengo billera on ayek desegiñ ta Elizaren era-kutsi maitetsu, eragille, pakezkoetatik aldendu diralako?

Argatik sayatzen dira billera ayen antzekuak berritzen, argatik Elizak alegiñak egiten ditu, agintariyai laguntza eskatuaz, langillien iza-era errezagua, ugariyagua izan dediñ; ez dezan beartsuak beti begiyen aurrian zarzarorako gosiaren itzal beltza ikusi, baizik izan dezan bere sari, irabaziyarekin echekuen sabela betetzeko diña, emaztia ta aurrak, bakoitza bere aldetik eren algartasunari dagokiyon bañan lan neke-tsuagoetan ari biar gabe. Langilliak irabazi dezala bere izateari dago-kiyona, bidezko dana, geyegirik gabe, bai, bañan baita ere biarduan guztiya.

Onetarako elkartu, batu bitez nagusi ta morroyak, jabe ta langilliak Kristauzko senidetasun betian, nagusiyak zekenak izan gabe, azpikuak bidezkoa dan baño geyago eskatzen ez dutelarik, alkarrekiñ pakia izan dezaten, ta bai batzuek ta bai bestiak ondo bete ditzaten lurrerako ta zerurako dituzten biarrak. Arkitu dezatela langilliak billera oyetan, ez eren griñak naidutena gogorrian iriñteko bidia, baizik ernai ta elkartuak egotia bere lan izerdiari zor zayona iñork kendu ez dezayoten. Baita ere nagusiyak jakin dezatela, azpikuak ez dirala aberiak bezela, ezingo dituela zuzen diran baño irabazi aundiyaguak atera.

Bañan ¿nork mugak jarriko diyozka gizonaren goguari? ¿Nork esango diyo iñori premi guchikua izan zaite, etzaite gauza askoz zale izan? ¡Gauza oyen ordez zoriona eman albaliozateke!

¿Badakizute, ordia, nun dagoan? Jaungoiko gabeko gizonak, Eliz Ama santaren etsayak, badakizute? Eziñ esango badiyozute, ematen ez badiyozute, ¿nolatan eskatuko diyozute iñori ez dezala emengo gauzetarako gurari geyegirik izan, ez ditzala zuzen edo oker emengo atsegiñak billatu, ez dedilla askoren zalia izan? Eta emengo gauza oyek gabe arkitzen bada ¿nola eragotziko diyozute duanarenganako on damuba?

¿Nola galeraziko dezute, asko nai ta ez izanak, gorrotua biyotzian

sortzia? Alperrik zabiltzate elkarren arteko aserriak gozatu nairik. Kendu, jaunak, zeruba ta ez dago adiškiretzerik.

Elizak bakar bakarrik au eskatu lezake. Elizak bakarrik esan lezayoteke beartsuai: ez naikua dezun baño geyago eskatu, ez opa izan aberats oyek dituzten ondo izate, jolas ta alperkeriyak; izan zazu aski zeriakiñ; beartsua zera, baita ere zure Jaungoikua beartsua zan, estalpe batian jayo, gurutze batian illtzan, bañan illaurretik, esan zituen ordu artian entzun etziran itz oyek: *Beati pauperes spiritu*, zorionekuak biyotza aberatstasunetan jarri ez dutenak. *Evangelizare pauperibus missit me*; etorri naiz beartsuai erakustera, oyek poztutzera. *Erunt novissimi primi*, azken diranak, bazterrian daudenak, oyek izango dira neretzat aurreneko.

Elizak ere esaten diye aberatsai: jabia zera, iñork eziñ zuri kendu leikezu ondo irabaziya, ordia, zu baño ere jabegua da Jaungoikua eta Jaun orrek irabazten utzi badizu, berak eta gogorki eragotzitzen dizu irabazi oyei, zere griñak asetzen, zere burua jolasten bakarrik, azken ematia. Zuri eman badizu, beste asko gabe daude; zuk lagundu biardiyezu, zuk zaindu biardituzu. *Tibi derelictus est pauper*. Izan begiramentu aundi bat mendekuentzat, argal, arlote badaude ere, soñi urratu, lanian zikindutako arpegiyakiñ ibilli arren senidiak zerate, maite biardituzute, oyenganako naitasun onek bakarrik, jakizute ta iza-zute beti ondo goguan, iriki leizkizuteke zeruko atiak, zeren oyei egiña Jaungoikoari berari egiña da, *quod uni ex istis mininmis fecistis mihi fecistis*.

¿Nork a. m. Elizak ez bada onela itz egin lezake? ¿Aldakizute Elizaren osterontzian, lurraren gañian iñor, dala agintari, jakintsu, erregerik onela mintzatu litekienik? Dijoala munduban goi goyenean egon arren, dijoala norbait orrela beartsu ta aberatsai itzegitera. Laster eta zuzen eranzungo diyote: ¿zein zera zu eta zergatik zure esanera jarri biardegu? Jaungoikua kendu diguzute, beraz gu gera nagusi ta buru ta Jaungoiko. Beste bizitzako zerurik ez badegu, emen nai degu zera izan, emen nai degu gozatu; lurraren jabe gera, guretzat naidegu ta iñor aurrian jartzen bada usatuko degu, urratu ta desegingo ditugu eragozpen guziyak. Ona emen, a. m., zer nolatan eranzungo luteken, ona zer eranzuten duten infernuko gorrotuakiñ dauden oyei, munduko norbaiten izenien, itzegiten badiyozute. Kendu, esango dizutet berri ere, kendu beste bizitzako zorionaren icharopen gozua ta ez dago pakerik, ezliteke izan elkarren arteko adiskidetasunik. Bakarrik Elizak

orrela itzegin lezake, zergatik Elizak bakarrik itzegitendu Jaungoikua-
ren izenean, berak bakarrik dauzka betikotasuneko itz eta eskeintzak.
Repromissiones habens et viatæ quæ nunc est et futuræ.

Ona emen nola Elizak bigundu lezaken gizonaren biyotza, gorro-
tuaren lekuban elkarganako naitasun sendo ta gozo bat jarri, batutzen
dituelarik denak, aberats ta langilliak zeru pozgarri, betikuaren nai ira-
zekiyan.

Alperrik osterontzian sayatuko dira. Alperrik eskatuko dituzte lan-
gillientzat sari aundiyaguak. Ongi da ta Elizak ere naidu, bañan au
bakarrik ez da aski, zergatik onek bakarrik eziñ aseko ditu errelijio
gabeko biyotzetan sortzen diran goza-nayak. ¿Ez da ikusi n. a. m. 1886
garren urtian, Beljikan, langille talde izugarriya, lanetik gelditu ta
aserre biziyan, lantegiyak ta batez ere kristalezko apika munduban dan
aundiyena, arrika, su eman ta ondatzen, nagusiyaren echiakin batera?
¿Zergatik? ¿Guchi irabazten zutelako? Ez noski. Askok, eziñ sīñīstu
alako sariyak zituzten, emengo jeneral batek aña irabazten zuten, jai
ta igandetan asko moskortzen ziran Champañ arduakiñ. ¿Zer falta zi-
tzayen? ¿Zer? Errelijiyua. Egunero zabaldu ta irakurtzen ziran erreli-
jiyuaren kontrako paperak.

Alperrik, bada, lagunkidak, alperrik sariyak geituko dira, baldiñ
errelijiyuak paketzen ez baditu, emengo gauzetarako gurari eta griñak
zerurontz biurtzen ez baditu.

Argatik, Elizaren itza pian, berari bidia zabal utzi diyoten erri ta
gizaldietan, beraren gana aundi ta chikik erakutsi billa jua izandu di-
ran denboretan, ez da izan orrelako guda ta eziñ ikusirik aberats ta
beartsuen artian. Bere lege pian asi ta bizitu diran errik, bizitu dira
paketsu, ta gure artian gertatu ta ikusten danari begiratu besterik ez
dago.

¿Nork esan emen zer nolatan euskaldun aberatsak sayatu diran,
zenbat alegiñekin Euskal-erriyaren buruzayak begiratu diyoten bear-
tsu ta arloteai? Ez da, esateko, erri aundi ta chikirik, beartsuentzat
biltoki, eche bat ez duenarik. Esan liteke etzala emen ez nagusi ta ez
morroirik; ez jabe ta ez maizterrik. Alkar maite, ondo etortzen zira-
la, alkarrekiñ poztutzen ziran, alkarrekiñ negar; jayotzarik edo ez-
kontzarik bazan, nagusiyak lendabiziko jakingozuan ta alaituko zan
maizterraren pozarekiñ, echadi bat balirake bezela. Argatik ere emen-
go baserritarra bizi izan da alai ta egoki. Lanian goizetik gabera, bere
arpegiko izerdiyarekiñ lurra busti ondoren kentzen diyo bere fami-

liyarentzat biarduen mantenua. Eta gorputzeko biarrak ase ondoren, jasotzen ditu begiyak zerurontz, jakiñik, an goitik begira daguala Euskaldunak ain zintzo serbitzen duten Jaungoikua, onek bedeinkatzen dituela eren nekiak, entzuten dituela eren otoitzak, gordetzen diyela betiko zoriona. Onela bizi da ondo ta pozik, kezka samiñik gabe, gure euskal baserritarra. Ikustian an urrutian, mendiko erpiñetan, erreka onduan, baserri chiki, churi, garbi, chukun oyek, esangenezakegu, orra or echadi on, zorionekuak. An, eguzkiya beziñ laster jeikitzen dira, argizkillarekin batera igotzen da ere zerura baserritar oyen ototza, laburra bai, bañan biyotz-biyotzetik irtetzen dana, ta au egiñ ondoren, an dijoaz lanera denak, aundi ta chiki, gizon ta emakume. Eguerdiyan bazkaitara bilduko dira, Jaungoikuaren izenian bedeinkatuko dute bazkari motz ura ta sorora berriz; illuntzian errosariyo santua esan, afaldu ta, barrengo arrik gabe, lotara. Au gaur, onela bigar, baita ere bizitza guziyan. Bizi bide neketsua dute, bai, bañan entzun oyen far gozuak, eresi alayak, zortziko zoragarriyak ta ia iñun arkitzen ote dan orren izate paketsunik. ¿Nundik datorkiye orren er ez ta pozik eramatia? Ez dago esan bearrik. Elizkoyak dira ta Jaungoikuak gozatu ta alaitzen ditu. Elkar maite dute, beartsuak badira ere gorrotorik ez daukate, denakin bizi dira senidetasunik ederrenian.

Eta Euskal-erriya beñere errelijiyuaren erakutsiyetatik aldendu ez dalako, gorde dira, zerbaitu beñepein, antziñako billera ayen aztarnak bezela.

Emen arkitzen dira erri askotan kofradi, anaitasuneko billerak, elkarri bai bizitzan ta bai eriyotzan laguntzeko. Elizaren erakutsiyakiñ sortubak ziran, kofradi kristauzkuak ziralako; emengo bizitzan lagundu eze, gorputzak zainduaz gañera, zaintzen zituzten animak, laguntzen ziyen ototz ta erregubekiñ, zeren kristaben senidetasuna ez da munduban bukatzen, baizik ere irautendu betikotasunian.

Bestiak alde batera utzirik ¿nork ez daki zer nolako arretarekiñ biltzen ziran gure ichasgizonak kofradi zar ayetan? Nola Elizak goratu ta bedeinkatzen zituen? Aita Santubak berak entzuten zituen oyen eskaerak, eranzuten ziyen ta baita ere eman animen onerako laguntza, ontasum ta barkamenak. Urruti gabe, or Ondarrabiyan arkitzen da Bula bat, Aita Santubak milla bosteun ta larogei ta amabost garren urtian emana, bedeinkatzen zuelarik, bertan ogei ta amarurtez lenagotik jarrita zegoan kofradiya, kofradi eder ta kristauzko maitetasu-

nez betetakua, ez bakarrik bertako mariñel beartsuai, baizik ere erbesteko ichasgizonai begiratu ta laguntzen ziyona.

¿Zer dira billera, lagunkida oyek, kristautasunak biyotzetan sortu duen senidetasun eder orren adigarriyak ez bada?

Argatik asieran esan det beste dierritan orain alegin askorekiñ jar-tzen asi diran gauzak, emen aiñā, berenez bezela, sortzen dirala. Ar-gatik ere orren errez izandu zaye diputadu jaun, prestuai, euskaldunen onerako asmatu dituzten asko gauza ipintzia, euskaldunak asabetatik ikasiya zeukatelako alkarganatzia ta errelijiyuak bedeinkatu ta lotzen zuen batasun onetan elkarri laguntzia.

Ez det onekiñ, diputadu jaunen alegiñ ona guchitu nai. Denok dakigu zenbai eta zenbat zor diyotegun; denok dakigu oyek guzik, bañan batezere, izendatu biarrik ez detan diputadu jaun batek, izango duela euskaldun biyotz bakoitzian beñere aztuko ez dan oroimen bat, Gipuzkoa Gipuzkoa dan artian autsiko ez dala orren izena eta uste det ere Jaungoikuak goguan eukiko duala, denbora berian sarituko duala Gipuzkoatarren onerako ainbeste sayatu ta ainbeste gauz on jarri izan dituan zaldun prestuba. Bai, nekez gordetako diruentzat jarri dituen kuchak, aberiak illtzen diranerako lagunkidak, zarzaroko premiyak arintzeko bidiak, emakume ta aur langillien zorirako egin diran sa-yuak, adierazten dute argiro, nolako arretak dauzkaten euskaldunak gero ta obetuago izan ditezen.

Ikustian nolako nekiakiñ erbesteko erriyetan bizi diran, zenbat alegiñekin sayatzen diran, nola igarotzen zayozkaten urtiak eta urtiak, emen ain errez ipiñi diran gauzak jartzeko, agertzen da zeñen ederki Kristoren legeak prestatzen duen erri bat egoki ta bidezko sayoetan mesediak artzeko. Baita ere adierazten du gure erriya: Euskal-erri maite, maite au, zer izango litzaken gure antziñako fuero ta lege zarrak baginduzke.

Gauza oyek bururazten zaizkitenian, begiratzian mundubaren gain datorren len esandako ekaitz ikaragarriorri, datorkit gogora antzi-ñean lur guziya estali zuan ugalde izugarriya. Noeren kucha ur ga-ñian bezela iruritzenzait ikusten detala Euskal-erriya, bere lege zar, askatasun ta fueruakiñ, errelijiyua gordelekutzat duala, mundubaren naspill izugarri orren erdiyan zutik, irme ta galanki, denen ikusgarri, erakusten diyela nola erri bat salbatu liteken, naiz ta ondamenak ika-ragarriyak izan.

Bañan onetarako geren jabe biargenduke izan, esan nai det, gure le-

ge zarrak osotasun guziyan biarditugu ta izango baditugu, geok sayatu biardegu, bakoitzak lezaken eran, eta uste det zerura begirutzen detanian irichiko ditugula baldiñ eta Jaungoikuarengana gero ta geyago biltzen bagera, euskaldunak beti erreljiyokoyak bagera, gurutzia gañian daukan gure arbola arri sendo eusten badiyogu.

Bañan au esatiakiñ ez da nere asmua Euskal-erriya erdal-erritik askatu ta aldendu biarduela eskatzia. Ez, nere iritziyan, ainbeste gizaldietako senidetasanak iraun lezake, iraun biardu aurrerontzian, len, agintari baten mendian, iraunduen bezela. ¡Ainbeste aldiz euskaldunen odola isuri izandu da erdaldunen odolarekiñ batera! Ainbeste aldiz denok batian eman izan dute bizitza Euskal-erriyaren ta Españiaren alde, nun iruritzen zait aldendu nai izatia alako gauza zatar, kaltegarri bat. Ez, euskaldunak gera, baita ere españolak eta Ama Guadalupekoari eta baita ere Ama Pillarekuari eskatuen diyegu españolen ta euskaldunen anaitasuna eten gabe biurtu deizkigutela Euskal-erriya ain erri argi ta aundiya egin duten lege zar ta fueruak.

Ez nuke bukatu nai eskaera bat egin gabe. Ikustenda lurgintzaren alde, nekazariyen onerako zer alegiñak egiten diran, bañan goguan biarda Gipuzkozko aberastasuna ez bakarrik lurrian baita ere ichasuan daguala. Ez gaitian aztu. Mariñelen kofradiyak doi-doi dabilta, iya eroriyan. ¿Eziñ zerbait egin liteke? Chit dira diñak gure ichasgizon irme ta bikañ oyek. Euskaldunak lurrian senduak badira, ichasoz munduba arritu dute. Kondairak esaten digu zer nolako mariñelak ziran euskaldunak; zer nolako ausardiyakiñ joaten ziran ifar aldera bakallua ta baliak arrapatzera. Munduban dan ichasorik aserre ta gogorrenian umetandik oitubak daude ta ez da ez ichaso arro, ez ekaitzik oyek izutuko dituenik. ¡Ta zenbat aldiz ausardi au dalako bizitza galtzen dute! ¡Zenbat alargun, umezurtz, laguntza gabeko guraso zar gure ichas bazterreko erri oyetan, ichaso bildurgarri orrek senar, guraso ta semiak ondatu ditualako! Beti arriskuban ta beti beartsu, au da ichas gizonen bizitza. Errukigarriyak dira ta zubek ikusiko dezute zerbait egiñ al liteken oyengatik. Barkanazazute au eskatzen badet. ¡Ainbeste aldiz ikusi ditut larri ia estu ichasora begira, an urrutiiyan gelditu dan trañnerua ote datorren! ¡Ainbeste aldiz ikusi ditut oyen negar samiñak, entzun ditu oyen diadar garratzak! Askok ta asko egin da, nere adiskide Zarauzko Bikariyo zanari eman zayon laguntzarekiñ. Askoren bizitzak gorde ta gordeko dira orren jakinduriyari eskerrak, bañan beñere geyegirik egingo ez da, beti illtzeko zoriyan bizi diren ichasgizon oyen alde.

Baita ere nai litzake egin zerbait, euskaldunentzat ain kaltegarri dan ordikeriya kendu edo beñepein guchitu dedin. Urte asko ez dala sayatu ziran diputadu jaunak, itz egin zuten, ez ordia, uste detanez, ezer erabalti. Orduban azaldu zuten zenbateraño erariyarako zaletasuna zabaldua zegoan. Ez det nik emendik esango, zergatik izutu ta lotsatu nitzan; bañan beste erri batzuetan griña nazkagarri ori guchitu dan bezela, denok gere alegiñian sayatzen bagera ayenatuko da emendik ere ta ez da orren sarritan azalduko gure bazter abetan ikuskizun ichusi, zatar, lotsagarri ori.

Bañan luzegi ari naiz ta bukatu nai det oartuaz oraindik, ez degula gelditu biar entzuten diran birau zikiri, blasfemi oyek, guregandik kendu artian.

Oyek dira biyotz biyotzetik egiten dizkitzutetan eskaerak. eta uste det aintzakotzat artuko dizkiatzutela, zeren dakitan goguan daukazutela beti, diputadu jaunak, Gipuzkoako ondo izatia.

Ez det esango egin bear dan guzia egin dezutela, eta zeok ere ez dezute usteko, bañan bai bide zuzenetik eta arreta aundiz sartu zera-tela, ta euskalduna ta apaiza naizan aldetik eskerrak ematen dizkitzute nere ta erri onetan bildu diran euskaldun guzien izenian.

Sayagaitian bada denok, a. m., Euskal-erriyaren onerako indar ta kemen guziyakin, eranzuten diyegula onela diputadu jaunen alegiñai.

Zubek diputadu jaunak, zeon aldetik, jarraituaz arako kristau zintzo, euskaidun bikaiñ jakintsu argidotar, Abbadie jauna zanak asiera emandako euskal-jayai, edertu ta osatu dituzute, erakutsi ere bai, euskaldun ta erbestekuai, izan nai degula aurrerontzian, oraindaño-kuan bezela, guraso zarren jarraitzaile sendo ta ziñezkuak. Oraingo euskaldunak ez gerala, berri zaleko gizonchu batzuben aldekuak, ez degula ukatu nai ez gure erreljiyua, gure izkuntza maite, berdiñikgabia, ez gure lege zarrak ez ta ere gure oitura on ta garbiyak. Orain, beti bezela, euskaldunak nai degu ta daramazkigu: *Biyotzian gurutza, eskuban bandera*. Bai, biyotzian gurutza, zeren gurutzian osterontzian ez dago pakerik, ez dago aunditasunik, ez dago ongi izaterik. Argatik gatoz jai oyen asieran, gurutzetuta dagoan Jaungoiko orrengana, aitor-tuaz ta esanaz: Zu zera, bakarrik, gure Jaun ta Jaungoikua, Zu gure on-tasunen iturburu bakarra, Zuk egin dezu Euskal-erriya aukerako erri bat, Zurea izandu da, Zurea izango da ere beti. Bai, beti Jaungoikuarena. Au da, n. a. m., lendabiziko biardeguna. Ez gaitian beñere Jaungoikuarengandik aldendu eta izango gera beti izen aundikuak lurrian.

Bai, Ama maite biyotzekua, irundarren Ama bigun Junkalekua, egizu. zure laguntzarekiñ ala gerta dedilla. Gorde gaitzatzu denok, agintari ta mendekuak, beartsu ta aberats, gipuzkoatar euskaldun guzik zureganako jayera gozo ta pozgarriyan, onela beti irauten degularik, ez gaitzan beñere Jaungoikuaren zigorrak arrapatu, baizik zure itzal maitetsubak gorde ta zerura eraman gaitzala. Ala izan dedilla Aitaren eta Semiaren eta Espiritu Santuaren izenian.

Concurso de Agricultura y Ganadería de Irún

1903

Acta del concurso agrícola

En la villa de Irún a veintiseis de Septiembre de mil novecientos tres, constituidos en el local designado por la Comisión organizadora y bajo la presidencia del Sr. Diputado provincial don Tomás Balbás, los Vocales D. Víctor Pradera, D. Joaquín Carrión, D. José Trecu, D. Vicente Loidi, Diputados provinciales y los Sres. D. Luis Larrauri, D. Enrique Delaire, D. Ignacio C. Núñez, D. León Olalquiaga, don Manuel Zubillaga, D. J. Benito Arizmendi y D. José María Yarza, Vocal Secretario, nombrados por la Excm. Diputación provincial de Guipúzcoa para actuar de Jurado en la Exposición de Agricultura y Ganadería, celebrada este día en Irún conforme á las bases del Reglamento y anuncios publicados previamente, se han admitido los objetos presentados a concurso desde las siete á doce de esta mañana, habiéndoles provisto á los expositores de la papeleta de ingreso con detalle del objeto exhibido, y habiendo procedido de dos á seis de la tarde al reconocimiento, clasificación y calificación definitivas, acordaron adjudicar los premios que se detallan en la siguiente relación: